

BALEIKE

268. ZENBAKIA. EURO BAT
2017ko IRAILA

www.baleike.eus



HELENE ALBERDI
HIRU KIROL
BATEGINIK

GAME OF THRONES TELESAILAK UTZITAKO ARRASTOA

Sartu gure webgunean
eta ikusi eskaintzarik onenak!



ENDAÑETA ZUMAIA

35 urte baino
gehiagoko
esperientzia

EZAGUTU ENDAÑETA

www.endañetazumaia.com

Zure erosketak
etxetik eroso
egiteko

Dendako prezio
eta zerbitzu
berdinak

24/48 orduan
etxean
muntatua eta
martxan jarria



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endañetazumaia.com

Gorka Zabaleta



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.eus

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Maialen

Odirozola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet,

Peio Romatet, Arnaitz Rubio Aprea, Iosu Alberdi,

Jose Manuel Castillo, Jabi Gonzalez Toston,

Izaskun Urbieta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

publizitatea@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

10

baleike +

HELENE ALBERDI: "TRIATLOIA
EGITEKO ARANTZA KENDU
DUT ETA ONDO NABIL"

4

erreportajea
GAME OF THRONES:
ARRASTOA UTZI DU

19

erretrotua
AHUNTZAREN
GAUERDIKO EZTULA

16

argazkitan
ZUMAIAKO XI. TRIATLOIA

24

elkarrizketa
BIDAIEN LIBURUA ATERA
DU JOSELU OIARZABALEK

30

agenda
IRAILA-URRIA

32

UDAKO ARGAZKI
LEHIAKETA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Arrastoa utzi du

TESTUA: GORKA ZABALETA

Game of Thrones telesail ospetsuko eszenatoki izan da Itzurungo hondartza amaitu berri den zazpigarren denboraldian. Baina zenbateko presentzia izan du?

Munduan hainbesteko sona daukan telesaila erakusleiko ikaragarria da, baina agertoki guztiek ez dute presentzia berbera izaten. Batzuek “zorrea” dute, gertaera edo bataila gogoangarri bat gertatzen da bertan, eta lekua betirako gelditzen da iltzaturik Khaleesi, Tyrion eta enparauen jarraitzaileen oroimenean. Beste leku batzuk, berriz, bigarren mailakoak dira eta ez dute halako oihartzunik lortzen.

Amaitu berri den zazpigarren denboraldiko zapki kapituluak aztertu ditugu, joan den udazkenean Itzurunen astebetetz grabazio lanek eman dutena baloratzeko.

1. KAPITULUA: Dragonstone, Khaleesiren etxea

Lehen kapituluaren amaierako sekuentzian agertzen da lehen aldiz Itzurungo hondartza *Game of Thrones* telesailan. Sekuentzia garrantzitsua da, Daenerys Targaryen *Khaleesi* arbasoen etxera –Dragonstonera– bueltatzen da, bere hiru herensugeekin. Denbora luzez itxarondako momentua da. Kapituluako unerik gorena da, ezbairik gabe, bost minututik gora irauten duen indar handiko sekuentzia, emozioa areagotzen duen musikarekin lagunduta, eta inolako elkarriketarik gabe.

Eta zer ikusten da? Aurrena, Itzurun eta inguruko labarrak ikusten dira; gailurrean, gaztelu handi bat, eta zeruan hiru herensuge erraldoi hegan. Ordenagailuz itxuraldatutako ingurua da, fantasiako paisaia,

baina ederki antzematen da Itzurun dela. Gero, hondartzan lur hartzen dutenean, Daenerys aurreratzen da multzotik. San Telmoko aldea da eta atzean Algorriko labarra ikusten da. Daenerys makurtu eta ezker eskuaren arrastoa uzten du hondarretan –ez harritu keinua modan jartzen bada–.



Ondoren, Zelai azpiko eskaileretatik Itzurungo gainaldera igo eta gazteluaren atarira iristen dira. Gazteluko atea ireki eta Gaztelugatxe agertuko zaigu. Horraino Itzurungo irudiak. Guztira, bi minutu eta 51 segundo. Hortik sekuentziaren eta kapituluaren amaieraraino beste bi minutu pasako dira. Tartean, gaztelu barrura sartzen direnean, tronua agertuko da. Hura ere ezagun egingo zaie zumaiarrei, harraldeko brankaden tankera baitu. Sekuentzia hasi eta 5 minutu eta 34 segundora, Daenerysek “Hasiko al gara?” esatearekin bat bukatzen da lehen kapitulua. Itzurun-Gaztelugatxe-Dragonstoneren aurkezpen ikusgarria.

3. KAPITULUA: bi protagonisten topaleku

Bigarren kapituluan Itzurun ez da agertzen, baina hirugarreneko lehenengo sekuentzia bertan hasten da. Momentu garrantzitsua jasotzen du, Daenerys Targaryen eta Jon Snow elkartzeko baitira lehen aldiz. Biak giltzarri dira telesailan, are gehiago amaierari begira.

Zer ikusten da? Aurrena, olatuak eta eskuinaldeko brankada; eta, segidan, ontziak lehorreratzen, hondartzaren eskuineko aldean, Itzuruntxiki aldera. Tyrion Lannisterrek egiten dio harrera Jon Snoweri, eta handik gaztelura (Gaztelugatxera) igoko dira, Daenerys Targaryenen bila. Sekuentzia osoak 4:03 irauten du, baina Itzurungo zatiak 2 minutu eta 26 segundoko iraupena du.



ZUMAIA-DRAGONSTONE

*Itzurungo hondartza Game of Thrones
telesailaren zale guztientzako ikono bihurtu da.*



Ibon **GAINZA**

“Itzurun polita zela guk bagenekien; kontua da orain jende askok dakiela”

Game of Thrones telesailean lan egiteko aukera izan zuen iaz Ibon Gainzak. “Edozer egiteko prest agertu nintzen castingera, baita estra lanak egiteko; baina curriculumean ikusi zuten banuela itsasoarekin lotutako esperientzia eta lan horietarako hartu ninduten”. Hilabete eta erdiko kontratua egin zion Aquafilms enpresak, mareak zaintzeko, zerbitzuak kontratatzen laguntzeko, itzultzaile lanak egiteko... “Errodajea bertatik bertara jarraitzeko aukera izan nuen, eta esperientzia, oro har, oso aberasgarria izan zen”.

Zure lehen lan esperientzia izan zen errodaje batean. Zerk harritu zintuen gehien?

Aurrez egindako planifikazioak eta koordinazioak. Gelditzen ez den makina bat da horrelako ekoizpen handi bat. Detaile txikiena ere zehaztuta dago, eta gupila ez da gelditzen. Arazo larriren bat gertatu eta errodajea eten egin behar bada, aseguru bat daukate kontratatuta, galera hori babesteko. Baina egun hori ezin dute hurrengo egunean errekueratu. Aurrena plangintza guztia bukatu behar dute aurrez zehaztu bezala, eta galdutako eguna beste baterako utzi. Baina errodajea eteteko zerbait oso larria gertatu behar da.

Telesaila ikusi duzunean, antzik hartu al diozu errodajeen ikusitakoari?

Bai, bai, emaitza ikustean gogoratu naiz errodajeen ikusitakoarekin, ezagunak egin zaizkit irudiak. Gainera, errodajeen zuzendariak bazeuzkan pantaila handi batzuk grabatzen ari zirena ikusteko, eta, noizean behin, burua luzatu eta hari begira egoten nintzen.

Eta zer iruditu zaizu emaitza? Gustatu al zaizu Itzurun nola atera den?

Bai, gustatu zait, ederra ikusten da, eta, gainera, asko agertzen da, eszena askotan eta kapitulu gehienetan. Protagonismo handia dauka hondartzak. Gero, harrigarria da nola itxuraldatu duten ingurua ordenagailuz, labar handiagoak jarri dituzte, gaztelua... Nire irudi faboritua, hala ere, Khaleesi Itzurunera iristen denekoa da: atzean labarra eta bera oinez gaztelurantz. Grabatzen ari zirenean ere pentsatu nuen ederra geldituko zela.

Kobazuloa ere erabili dute grabaketarako. Han ibili ziren hondeamakina batekin joan den udan, grabaketaren aurretik. Zertan ibili ziren?

Kezkatuta zeuden kobazuloaren aurrean egiten den putzu handi horrekin, grabatzeko traba egiten zuelako. Putzua



estaltzea pentsatu zuten, edo ponpa batekin ura ateratzea... Probak egin zituzten, baina alferrik zen. Marea etorri eta hurrengo egunean putzua hor zegoen berriro. Azkenean, zegoen bezala uztea erabaki zuten, eta moldatuko zirela. Baina, horrez gain, kobazuloko eszenak grabatzeko oso garrantzitsua izan zen mareak zaintzea. Itsasbeheratik kobazulora bi ordutan iristen zen ura. Goizean goizeko mareak ziren, gainera. Itsasbeheraren aurretik joan behar izaten zuten dena prestatzera, itsasoa kobazulora iristerako grabaketa bukatuta izateko. Mareak ondo zaintzea garrantzitsua izan zen kasu horretan.

Haitz batzuen moldeak ere egin zituzten grabaketaren aurretik. Zertarako erabili zituzten?

Nik uste dut Khaleesiren tronua egiteko erabili zituztela. Ez nago erabat seguru, baina uste dut hortik atera zutela. Santelmopeko bi haitzen moldeak egin zituzten.

Eta errodajea bertatik bertara jarraitu eta gero, telesaila orain beste begi batzuekin ikusten al duzu?

Niretzat magia pixka bat galdu du. Orain badakit gauzak

nola egiten dituzten, eta lehen dena zen fantasia eta magia. Eta gero, Itzurun, gure betiko hondartza, hor ikusteak, pixka bat lekuz kanpo uzten nau. Arraroa da.

Aukerarik izan al zenuen aktoreekin hartu-emanen bat izateko?

Egia esan, errodajearen dena oso profesionala da eta bakoitza bere lanean dago murgilduta. Aktoreek harreman handiagoa dute beraien inguruan lan egiten dutenekin. Akordatzen naiz egun batean Kit Haringtonek (Jon Snowk) zigarro bat eskatu eta neuretik eskaini niola; baina, hortik aurrera, han mundu guztia lanean zegoen buru-belarri.

Entzun genuen Tyrion Lannisterren pertsonaia egiten duen aktoreak, Peter Dinklage-k, ordezko bat daukala. Hala al da?

Bai, baina aktore garrantzitsu guztiak dute seriean ordezko bat. Baina ez da eszena arriskutsuetan ordezkatzeko. Erabiltzen dituzte aurrez grabaketa prestatzeko, bakoitzarekin kokapena erabakitzeko, dena prest dagoenean aktore titularrak etorri eta zuzenean grabatzeko. Dena den, Zumaian grabatutako eszenetako batean espezialista batek Alfie Allen (Theon Greyjoy) aktorea ordezkatu zuen azken kapituluan, hondartzan ikusten den borrokako zenbait unetan, kolpeak eta daudenean. Bide batez: eszena horretan Jon Mikel Arana zumaiaarra dago atzean ikusten diren gerlarien artean.

Zumaiaiko hiruzpalau arraunlari ere agertzen dira laugarren kapituluan, pare bat segundoz...

Bai, eta egun osoa pasa zuten grabaketan. Behin eta berriro uretan sartu eta atera ibili ziren, bustita. Goizeko sei eta erdietarako makilatzerara joan behar izan zuten, arropak

jantzi, eta goizeko zortzietarako hondartzara. Eszena hamar bat aldiz edo grabatuko zuten, kamera eta angelu ezberdinetatik. Hasieran ideia zen arraunean eginez iristea urertzera eta arraunean eginez itsasoratzea, baina ez zen posible izan. Bi proba egin genituen, baina olatuekin ezinezkoa zen, irauli egiten zitzaizen ontzia.

Nola bizi izan zen lan taldearen barruan errodajearen inguruan gertatu zen zalaparta?

Barruan, batik bat, harriduraz. Lantaldeko batek komentatu zidanez, zuzendaritzakoei ez zien grazia handirik egin eta pixka bat haserre zeuden gertatzen ari zenarekin, hainbeste jende eta medio irudiak lortu nahian. Baina azkenean ez dakizu benetan hala den edo, azken finean, ez ote zaien komeni publizitate hori guztia. Niri, pertsonalki, ez zitzaidan batera txukuna iruditu medio batzuen jokaera: ETB, DV...

Orain, hondartzara joaten zarenean, beste modu batera ikusten al duzu?

Orain pixka bat beldurra ematen dit. Aurreko batean aitak esan zidan Madrilgo enpresa bat hasi dela pakete itxiak eskaintzen, hiru egunetan teleaileko lokalizazioak ezagutzeko, 250 euroren truke. 25 laguneko taldeak. Ikusten ditudanean turistak haitzei begira, burura etortzen zaidan lehenengo gauza telesaila da. Oraindik ez dut inor ikusi hondarretan eskuaren marka lagatzen, baina batere harritu ez. Orain arte turistek galdetu izan dute non dagoen *Ocho apellidos vascos*eko ermita; aurrerantzean, agian, herensugeen kobazuloaz galdetuko dute. Itzurun polita zela guk bagenekien; kontua da orain jende askok dakiela, eta normala da ikustera etorri nahi izatea. Hori kudeatzen jakin behar da.

“Niretzat magia pixka bat galdu du. Orain badakit gauzak nola egiten dituzten, eta lehen dena zen fantasia eta magia”





Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



diseinua
inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943 14 31 22 ■ fax: 943 14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i



AL-ANON

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartera
Tel. 650 265 963
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943 862 152

LIBRURU DENDA

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 726188
943 143261



Amama taberna

tel: 943 543 164
amamataverna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 Tel. 943 509 169

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com 

Denda: Txomin Agirre, 4 Tel. 943 862 532
Arotzategia: Santiago, 40 Tel. 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA
Artxupe

Napako 2. tel. 943 861 501

ZUMAIA

OGI-EDER



Arruti
ARROPA DENDA

ANGELES SORAZU 1 BEHEA
943 543 406
20750 ZUMAIA (GIPUZKOA)



Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injekzioa Diesel injekzioa Elektrizitatea/Elektronika Piztea

Balaztak, ABS, ESP Mantentze mekanika Motorraren mekanika Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943 861 485
autoszumaia@bosch-bcs.com

Azkue

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, behea tel. 615 793 406 / 943 862 651
elena@ricardoazkue.com fax: 943 862 748



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25 - 20749 Arroa tel./faxa: 943 148 306
bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritza

Ribaitorio Itaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
www.basadialbaitaritza.com
www.basadialbaitaritza.com

Golez: 11-13 / Arrabaldoz: 15-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxia
Lantekibereko: 605 728 737 Etkez ebeko zerbitzua



BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Patxila Ebezarreta, 25 Tel.: 943 86 20 73
943 86 04 38
20750 Zumaia (Gipuzkoa) asadorbasusta@hotmail.com



Braky's
Okindegia • Katetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289



gero kanpoaldean. Jon Snowk alde egiten du Dragonstone-tik, Daenerys Targaryenekin ibiltari zurien aurka elkarrekin borroka egiteko tratua egin eta gero.



7. kapitulua: bigarren mailako borroka bat

Seigarren kapituluan Itzurun ez da agertzen. Zazpigarren denboraldiko azken kapituluan, beste sekuentzia bat gertatzen da Itzurunen, kasu honetan bigarren mailako pertsonaia bati dagokiona: Theon Greyjoyri. Sekuentziak 4 minutu eta 20 segundo irauten du. Berriro oso ondo ikusten da hondartza, kasu honetan Itzuruntxiki aldera.

4. KAPITULUA: 'Dragonglass' minerala kobazuloan

*Game of Thrones*ek kontatzen duen istorio nagusian badira *ibiltari zuriak* deituriko pertsonaia beldurgarri batzuk. Heriotza zabaltzen duten zonbi moduko batzuk dira, *pelikulako gaiztoak*, eta haiak akabatzea da erronka. Bada, zonbiak akabatzeko giltzarrietako bat Itzurungo kobazuloetako batean aurkitu dute: *dragonglass* edo bidriagoi minerala. *Flysch* hitza ikasteko urte batzuk behar izan baditugu, beste hau ere gehitu beharko dugu herriko hiztegiara.

Kontua da laugarren kapituluan Jon Snowk eta Daenerys Targaryenek kobazuloa bisitatzen dutela. Labarreko lehenengo kobazuloa da, lehorretik kontatzen hasita. Zumaiarrok badakigu kobazulo txikia dela, baina telesailean magia egin dute eta kobazulo sakona ikusten da. Eta *dragonglass* minerala gutxi balitz, labar artea ere aurkitu dute. Antzinako izaki batzuek margotutako irudiak ikus daitezke, tartean, lehen aipatutako ibiltari zuri zonbiak.

Sekuentzia honek, guztira, 7 minutu eta 40 segundo irauten du, eta gehiena kobazuloaren barrunbe asmatuan gertatzen da. Hala ere, Itzurunera gerturatzen diren bisitariak segituan identifikatuko dute zein den kobazuloaren ahoa, eta seguru aurrerantzean bat baino gehiago ikusiko dugula *dragonglass* edo ibiltari zurien irudien bila sartzen. Erreklamazio orriak HBO-n...

Laugarren kapituluan bada Itzurunen gertatzen den bigarren eszena bat, laburragoa. Minutu bat eta 38 segundo irauten du. Theon Greyjoy –bigarren mailako pertsonaia bat– iristen da Itzurunera txalupaz. Berriro Algorri aldeko labarra ikusten da, ordenagailuen mirariz, ezagutzen duguna baino askoz garaiagoa.

5. KAPITULUA: Daenerys eta Snow

Bosgarren kapituluan ia lau minutuko (3:57) sekuentzia bat gertatzen da Itzurunen. Zati bat kobazuloaren barruan, eta



Balorazioa

Esandako guztia kontuan hartuta, lehenik eta behin, bi datu esanguratsu: zazpitik bost kapitulutan agertzen da Itzurun; edo denbora guztia zenbatuta, ia 23 minutuz agertzen da telesailean; zehazki 22 minutu eta 53 segundo –kobazulo barruko irudiak ere kontuan hartu ditugu, gehiena estudioan asmatutakoa bada ere–. Askok da, dudarik gabe. Gainera, presentzia handia du, ez da disimuluan gelditzen, oso ondo ikusten dira hondartza eta bere osagai berezienak: labarrak, brankadak, kobazuloak...

Bestetik, Itzuruneko telesailaren historian daukan garrantzia neurtzeko garaian, pare bat kontu esan daitezke. Egia da ez dela guda gogoangarririk edo gertaera erabakigarririk gertatzen, eta, alde horretatik, ez da agertoki mitikoenen artean egongo. Baina bere garrantzia ez da hutsala, batik bat kontuan hartuta Gaztelugatxe-Itzurun Dragonstone direla, Khaleesiren gotorlekua. Ikusteke dago Itzurunen edo Gaztelugatxen grabazio saio gehiago egingo dituzten, baina oso litekeena da zortzigarren denboraldian Dragonstone berriro agertzea, estudioan grabatutako gaztelu barruko irudiekin. Eta horrek, zeharka besterik ez bada, Itzurunen arrastoa sakonduko du. ■

Helene **ALBERDI**
TRIATLETA

“Triatloia egiteko arantza kendu dut eta ondo nabil. Zer gehiago eska nezake?”

TESTUA: FELIX AIZPURUA ETA JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA



Helene Alberdi orain 26 urte jaio zen Bilbon. Bizkaiko hiriburuan bizi izan da 20 urte zituen arte, baina, gaur egun, Zumaian bizi da. Zumaia txikia zenetik etorri izan dela adierazi zigun uztailean egindako elkarrizketan. “Betidanik etorri izan naiz Zumaia. Udan asteburuetan, Aste Santutan eta Gabonetan etortzen nintzen. Igeriketan hasi nintzen eta horregatik gero eta gutxiago etortzen hasi nintzen, baina uda garaian beti”.

Mediku izateko ikasketak egin ditu, eta, gaur egun, mediku egoiliarra da Zarauzko anbulatorioan eta Mendaroko ospitalean, “lana eta formakuntza nahastuta. Zarauzko anbulatorioan egiten dut lan, eta, gero, guardiak Mendaron”. Familiako mediku izateko ikasketak egin ditu, baina bere ametsa kirol medikuntzan jardutea izango litzateke. “Hala, lana eta afizioa bateratuko nituzke”.

Izan ere, kirolari porrokatua da Helene Alberdi. Txikia zela igeriketan aritu zen eta azken hiru urte hauetan triatloira bideratu du bere kirol jarduera. Donostiako Yepa Triatloi Taldean dago federatuta, baina taldearekin ez du konpromisorik. Kirol honetan erabiltzen duen materiala, berez nahikoa garestia, bere poltsikotik ordaintzen du. Berekin ekarri zuen bizikleta bere lehen soldatarekin erosi zuela esan zigun. “Koadroak bakarrik 5.000 euro balio zuen eta atzeko gurpilak 800 euro. Aurreko gurpilekin batera erosi nuen 1.500 euroan”.

Triatleta bezala ezagutzen zaitugu. Aurretik beste kirolik egin al duzu?

Kirolzalea betidanik izan naiz. Medikuntzako karrera hasi nuen arte igerian ibili nintzen, baina, behin ikasketak hasi nituenean, ezin nuen maila horretan segi eta utzi egin nuen igeriketa. Karrerako azken urtea lasaiagoa zen eta berriro kirolera itzultzeko gogoia nuen. Hasieran, igeriketara itzultzea pentsatu nuen, baina triatloia beti izan dut buruan. Ez nuen inoiz probatzeko aukerarik izan; probatu nuen eta gustatu egin zitzaidan. Aurtengoa hirugarren denboraldia izango da.

Triatloian dabilen jende asko ez da triatloian bertan hasi. Beste kirol batzuetatik datoz. Igeriketa, arrauna, futbola...

Nire kasuan, ezin dut esan igeriketatik pasa nintzenik triatloira. Igeriketa egin nuen, gero bost urte egon nintzen ezer egin gabe eta horren ondoren hasi nintzen triatloian.

Oker ez bagaude, debuta 2014ko Zumaiaiko Triatloian egin zenuen.

Aurretik txiki bat eginda nuen, emakumeentzako bat, baina, bai, bestela lehen triatloia Zumaiakoa izan zen, herrikoa. Horren ondoren hasi nintzen serio entrenatzen.



Herrikoian, igeriketan zenuen esperientziagatik, agian, lehen proba laburra egingo zitzaizun eta beste biak gogorrak.

Igerian aurretik atera nintzen. Gero, bizikletako sektorea izan zen. Ez nintzen hor ona kontsideratzen, baina txarra ere ez. Gogoan dut, amaieran, lagunek uste zutela erori egin nintzela proba horretan, denbora asko galdu nuelako. Hor ikusi nuen txirindularitzan txarra nintzela! Korrikari, gero, ondo aritu nintzen, baina sentsazioa izan nuen triatloia ez zela niretzako moduko kirola. Beherakada izan nuen hor.

Triatloian debuta egiten duten askoren sentsazioa izaten da igeriketan oso gaizki aritzen direla. Zuk, berriz, hori gaudituta duzu.

Triatloia egiten duen batentzat igeriketa da zailena; teknikoena da eta hor pasatzen dute gaizkien. Nik igerian egin badut ere, igeriketan pasatzen dut okerren; nahiago besteak egin hori baino. Agian presio handiagoa dut aurretik atera behar dudalako. Baina, egia da, baita ere, igeriketan ateratzen direla alde txikiak. Igerian 700 metrotan minutu bat ateratzea asko da eta bizikletan minutu bat ez da ezer. Bizikletan ez bazara ondo ibiltzen, bizikletara igo zarenerako aldea kendu dizute.

Lehen proba hori gogorra izango zen zuretzat. Baina zerbait polita ere aurkituko zenuen, jarraitu egin zenuen eta.

Triatloian hasi aurretik arantza hori sartuta nuen. Triatloiak ikusten nituen, gustatu ere bai, baina ez nuen hasteko momenturik aurkitzen. Galdutako aukera bat bezala ikusten nuen. Hasi nintzenean, ikusi nuenean gai nintzela eta, gainera, emaitza onak lortzen nituela, hor engantxatu nintzen. Motibatu egin ninduen, gehiago entrenatzen hasi nintzen, jendea ezagutu nuen eta mundu horretan sartzen joan nintzen pixkanaka.

“Triatloia oso garestia da. Ni orain ari naiz emaitza onak lortzen eta diru bat irabazten. Baina, hala ere, dirua galtzen ateratzen naiz.”



IGERIKETAN

Ohikoa du Helenek igeriketa proba lehen postuan amaitzea eta Zumaian ere hala izan zen.

Utzitako bizikleta batekin hasi al zinen? Edo erosi egin zenuen?

Aitarena zen Zeus bizikleta zahar batekin hasi nintzen. 20 urtetik gora zituen bizikleta hark. Harekin hasi nintzen, baina duatloietarako Ainhoa Murua-rekin entrenatzen hasi nintzenean, Jon Unanueren bitartez, bizikleta bat erosi nuen. Gero, ikusi eta ikasitakoarekin hasi nintzen materiala lortzen.

Materiala hitza agertu da. Garbi dago triatloia kirol garestia dela.

Oso garestia da. Ni orain ari naiz emaitza onak lortzen eta diru bat irabazten. Baina, hala ere, dirua galtzen ateratzen naiz. Igerian aritzeko kiroldegiko txartela atera behar duzu. Neoprenoko jantzi txukun batek 400 euro balio du, bizikletak 2.000 eta 4.000 artean daude eta *kabra* bat 6.000. Bizikletako pieza

bat hautsi eta mekanikoari deitu behar bazaio, 50 euro joaten zaizkizu. Gero, triatloietan parte hartzeko ordaindu behar da. Zarauzkoan parte hartzeko 120 euro ordaindu behar dira. Ironman batean pentsatzen baduzu, 500 euro. Ostatuak, bidaiak... negozio bat da.



BIZIKLETAN ETA KORRIKA

Txirrindularitza saioan igeriketan lortutako abantaila handitzea lortu zuen. Korrika saioan alde txikitu bazioten ere, Zumaiaiko Triatloian lehena izan zen Helene.

Federazioko bilera batean entzun nuen triatleta bakoitzeko urteko gastua 2.000-3.000 eurokoa zela.

Nik gehiago esango nuke. Kopuru hori erraz joaten da denboraldian. Gero, eroriko bat duzula, gurpilak aldatu nahi dituzula, kanpora joan nahi duzula lehiatzera, azkenean kopuruak joan egiten dira.

Zure kasuan, maila on bat lortuta, laguntza txiki batzuk, behintzat, izango dituzu.

Ez, ez. Une honetan ditudan diru sarrera bakarrak karreretan lortzen ditudan emaitzengatik datozenak dira. Ez dut ez babeslerik, ez ezer ere. Triatloia niretzat hobby bat da eta hortik etortzen den dirua horretarako erabiltzen dut. Baina, aurrean ibilita ere, diru galerak izaten dira.

Ez al daukazu babesle baten bila has-teko gogorik?

Oraingoz lau urteko erresidentzia egiten ari naiz. Lanbide honetan zentratu nahi dut eta dudan denbora librea entrenatzera eta lehiatzera dedikatu. Babesle bila aritzeko gehiago mugitu behar zara eta kirolean zentratu. Une honetan badut beste diru sarrera bat eta gaur bezala jarraitzeko aukera ematen dit horrek.

Triatloian, beste kirolean bezala, gero eta emakume gehiagok hartzen du parte.

Bai. Ni orain gutxi hasi naiz eta ez dut eboluzio hori ikusi. Baina, Ainhoarekin hitz eginda, esaten zidan hasi zenean hiruzpalau neska izaten zirela. Orain, alde handia egonda ere, diferentea da. Gehienbat, Zumaian. Ibilbide laua da, errazagoa, eta neska asko animatzen da.

Zarautzen ere bai. Triatloi luzeetan ere ikusten da hori.

Hala ere % 20ra ez da iritsiko, baina, bai, asko hasi da.

Hori pozgarria izango da, ezta?

Bai, bai. Nik uste beldur hori dagoela, ez garela gai izango halako proba bat egiteko. Baina ikusita emakumeak gizonen kategorian lehiatzeko gai garela, horrek jende gehiago animatzen du.

Orain hamar edo hogei urte triatloia superheroien kontu bat bezala ikusten zen.

Ni ere horregatik ez nintzen lehenago ausartu. Baina triatloia egitea beste edozein kirol egitea bezala da. Ni, behintzat, ez naiz kontsideratzen beste munduko zerbait. Igeriketarik nator eta, nahiz eta ez den nire kirol kuttunena, ondo aritzen naiz gehien landu dudalako. Korrikan eta bizikletan orain gutxi hasi naiz eta orduak sartuta lortu dut horretan ere gozatzea.

Zarautzen, Gasteizen eta Iruñean uretatik ateratzen zu izan zinen lehena.

Zarautzen eta Gasteizen bai, eta Iruñean lehenarekin batera atera nintzen.

Hark pasa zuen txipa nire aurretik, baina beste bietan lehena izan nintzen. Azkenean hori sinbolikoa da, zeren eta distantzia horietan garrantzirik ez du igeriketan. Zarautzen 40 segundo atera nizkion Judith Corachani eta Meagan gora pasa egin ninduen.

Non ikusten duzu hobetzeko aukera duzula?

Bizikletan. Ordu gehien eskatzen dituen da, baina, orduak sartzen badituzu, hobetuko duzu. Korrikarako eta igeriketarako.

“Triatloia egitea beste edozein kirol egitea bezala da. Ni, behintzat, ez naiz kontsideratzen beste munduko zerbait”



01:09:45

Emakumeetan, onenen artean

Orain hiru urte egin zuen Helene Alberdik bere lehen triatloia eta denbora epe laburrean, emakumeetan, onenen artean kokatu da. Aurtengo probetan lortutako emaitzak hala erakusten dute.

Duatloietan, Barakaldoko proban bigarren izan zen. Emaitza bera lortu zuen Mungiakoan, baina, Oñatin jokaturako Euskadiko txapelketan lehena izan zen.

Triatloietan, denboraldiari hasiera ematen dion Gertariako hitzorduan lehena izan zen. Iruñean, Espainiako txapelketan, hirugarren izan zen eta Zarauzko Triatloian laugarren. Donostian egiten den Onditz triatloian seigarren izan zen eta bigarren Kantabriako Buelnan jokaturakoan. Zumaian, berriz, esprint distantziakoa irabazi du. Zarauzko eta Donostiako probetan triatleta profesionalekin lehiatu zen Helene.

Aurtengo denboraldia amaitzeko, Ibizan urriaren 22an jokatu den distantzia luzeko triatloian parte hartzeko asmoa du. 4 kilometro izango dira igerian, 120 kilometro bizikletan eta azken 30ak korrika.

BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Indurigrunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700



Amalako plaza, 13 tel. 943 862 385
www.xantzialtzariak.com



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara

MÁSMÓV.L



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A

tel. 943 016 353

UZKUDUN taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel: 943 11 63 97

Galdona



burdindegia

Mondaró marmela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

Ganbara

TABERNA

Juan Belmonte, 5

tel. 943 861 057

Garaa

Carlos Cirfero - Anhoia Olaizola

tel.: 943 86 21 81

Txomin Agirre, s/n

20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE

INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 391 777

matrikulazioa dohainik!



Zapaia

Taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

yoana ileapaindegia

Amaia plaza,
2 beheha
943 143 278



Ikastegi homologatua

Golden Gate

Institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943 865 020
info@goldengateinstitute.com

rako gaitasun batzuk behar dituzu, baina bizikletan orduak sartuta egiten zara. Hori da nire itxaropena. Oraindik ez naiz asko ibili eta hor uste dut dudala hobekuntzarako aukera handiena.

Medikuntzako erresidentzia egiten ari zara. Nola uztartzen dituzu lana eta kirola?

Denek galdetzen didate hori. Nola? Beste ezer egin gabe. Beste gauza guztiak kentzen aurkitzen dut denbora kirolerako. Ez daukat beste inork baino abilitade handiagoa ez ikasteko, ez kirolerako, ez ezertarako. Lehentasan kontuak dira. Momentuz triatloiak bete egiten nau. Nik orain triatloia lehenetsi dut, eta, egia esan, nire egunak Tetris jokoa bezalakoak dira. Esnatu, igeri egitera joan, lanera joan, handik bueltan 10 minutuan jan, entrenatu... Kuadrillarekin afarietara agertu bai, baina, noski, parrandetan pasatu gabe. Euskal Jai egunean, adibidez, ni lehen ateratzen nintzen eta badakit zer den, baina orain ez nau betetzen. Agian faltan sumatzen dut hasieran, baina, gero, parrandak ez nau betetzen.

Medikuntzan gogorrena ikastea da. Triatloian hasi nintzenerako etapa hori pasatu nuen. Medikuntzan egiten dut lan, baina beste edozein lan bezala da. Orain nire zazpi orduak egiten ditut, beste edozeinek egiten dituen bezala. Okerrena, agian, guardiak dira. 24 ordukoak dira eta horiek gogorrak egiten zaizkit. Guardia dudanean goizean goiz joaten naiz igerilekura, gero 24 orduak egiten ditut lan eta hurrengo egunean joaten naiz entrenatzera. Bestela, baldintzak ez dira txarrak.

Elikadura zaintzen al duzu?

Ez naiz asko zaintzen, baina txerrikiak eta frijituak ez ditut jaten; plantxan prestatutakoak jaten ditut. Xehetasun txiki horiek zaintzen saiatzen naiz. Etorkizunera begira, gehiago landu nahiko nuke. Ez dut dietistikari eta uste dut hor pixka bat huts egiten dudala. Askok jaten dut, baina baita erre ere. Triatloian hasi nintzenean, hori jakinda, ez nintzen zaintzen. Gero konturatzen zara kilo batek asko egiten duela. Igeriketan agian hainbeste ez, baina korrikan eta bizikletan asko.

Maila bikaina erakutsi duzu. Zein dira zure helburuak denboraldi honetan?

Aurten distantzia erdiko hiru triatloi egin ditut. Iruñekoak, gainera, Espainiako txapelketa zen. Tartean esprint distantziakoak eta olinpikoak ere egin ditut. Aurtengo helburuen artean falta zaidana da urrian Ibizan egingo den distantzia luzeko Espainiako txapelketa. Hori ondo bideratu nahi dut. Zumaiakoa eta beste triatloi batzuk ere egingo ditut [Zumaia proban irabazlea izan da], baina helburu nagusia distantzia luzeko triatloia izango da.

Non moldatzen zara ondoen? Distantzia luzeetan edo esprintekoan?

Distantzia luzeetan igeriketarako pisua galtzen du. Motzetan igeriketarako garrantzi handiagoa du, laburra izanda ere, gero ez dagoelako hainbesteko distantzia edo denborarik alde jateko. Distantzia luzeetan hori galdu egiten da. Nahiz eta ni igeriketan ondo aritzen naizen, etorkizunean nire burua hobeto ikusten dut distantzia luzeetan. Laburretan jende gaztea ibiltzen da gehien. Distantzia luzeetan jende heldua gehiago aritzen da, erresistentzia handiagoa duena.

Ba al duzu triatloian idoloen bat?

Ez naiz idoloak dituenetakoa. Baina eduki dut aukera Ainhoa Murua ezagutzeko, nire entrenatzailea da, gainera, eta niretzat erreferentzia bat da. Izugarria da zer palmarekin duen; lau joko olinpikotan izan da. Eta harri-garria da zer tratatu hurbila duen jendearekiko. Berekin entrenatzen hasi nintzenean ez nuen korrikako serie bat inoiz egin. Bizikletan ibili gabe nengo. Lehen aldiz bizikletan entrenatzera atera nintzenean, Ainhoa eta Jonekin izan zen. Pentsatu nuen ea zein zen olinpiadetara zihoan baten beharra ni bezala hasiberri batekin ateratzeko. Bera, garai hartan, Rioko jokoak prestatzen zebilen eta bi ordu gorde zituen nirekin bizikletan irteteko. Gustatu egiten zaio eta benetan bizi du kirol hau. Lehen Ainhoa Murua triatleta ezagutzen nuen eta orain Ainhoa pertsona ezagutzen dut. Hogeitaurtean dabil honetan, lau olinpiadatan izan da eta orain nirekin dabil. Orain beste erritmo batean joango gara, baina hasiera hartan, nire aitaren bizikleta zaharrarekin ateratzen nintzenean, 20 kilometro orduko abiadura joaten ginien.

Eta berak zer esaten dizu?

Ez diot inoiz galdetu, baina uste dut ilusioa egingo diola. Proben inguruko aholkuak ematen dizkit, baina, orokorrak, kirolaz, etorkizunaz eta halakoez ez dugu hitz egiten. Azkenean, nik izan dezaket ideia bat, baina denborak, bizitzak, zure lekuan jartzen zaitu. Niri orain bi urte nork esango zidan hau egingo nuela?

Kirol honetako profesionala izango bazina, agian presio handiagoa sumatuko zenuen. Baina, amateurra zara.

Zarauzko Triatloiko kartela atera zutenean, emakumezkoaren argazkia nirea zen. Zarauzko proba garrantzitsua da eta nire aurpegia ikusi nuen, ostras!, agobiatu ere egin nintzen. Bezperan neure buruari zenbait galdera egin nizkion: orain arte egindako lanarekin gustura zaude? Bai. Bada, orduan egiten duzuna eginda ere merezi izango du. Ez da soilik lortzen duzun emaitza, egindako bideak du garrantzia. Triatloia egiteko arantza hori nuen. Arantza hori kendu dut, ondo ari naiz; beraz, zer gehiago eska dezaket? Horrekin presioa kendu egiten dut gainera. ■





Zumaiako XI. Triatloia zenbakitan

600 triatleta etorri ziren Zumaiara 2.000 jarraitzaileen animoekin triatloian parte hartzera. 120 boluntarioren lanari esker, Zumaiako XI. Triatloia arazo handirik gabe jokatu zen. 200 litro ur, 200 litro isotoniko eta 200 kilo fruta behar izan ziren kirolarien beharrak asetzeko. Proba herrikoian 200 kirolarik parte hartu zuten eta esprint distantziakoan 400 triatleta izan ziren irteera puntuan. Triatloi herrikoia ren hasieran minutu bateko isilunea gorde zen Joxe Manuel Azkue *Xirularen* omenez. Eta, esprintekoaren aurretik, Mikel Crespo kirolari aretxabaletarra gogoan izan zen eta familiari lore sorta bat eman zitzaion.

ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA



Gure-Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiak
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis. tel. 943 143 384

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

Iriondo optika



Kantauri plaza, 8. Zumaiak. tel.: 943 86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943 85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orofarako solinu eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa
tel. 943 63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ



Ileapaindegia Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIK (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
OPARIK

Angelos Soratu, 2
20750 ZUMAIK (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
fax: 943 430 657

Talaxia
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

ORRAZTEGI
ZUMAIK



943 862 083

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Baseldi auzategia, 10 tel. 943 05 05 77

JUSTA
taberna

Erribera kalea, 20 www.justataberna.com
tel. 943 861 405 justa@justataberna.com

KABI Patxita Etxezarrate, 18
943 117 427

TABERNA



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

DOIA



Julio Beobide, 2
943 574 986

kuttun
lentzeria



erribera kalea tel. 943117936

EZTULA EZ DA ISILDU

ERRETRATUA

TESTUA: JULEN APERRIBAI
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Hiru hamarkada igaro dira AGE taldearen lehen kontzertutik. Musikari lehen bezain emanak jarraitzen dute Joseba eta Mikel Aizpurua taldekideek. Horren adibide da kaleratu berri duten Berandu baino lehen diskoa.





LOKALETIK HURRE

Basadin dute Aizpurua anaien entsegu lokala eta handik hurbil egin da argazki saioa.

Musikak, eta, zehazki, rockak Zumaian izan duen bilakaerari erreposoa ematen dion edonork ezinbestean egingo du topo izen jakin batzuekin, izan izen horiek musikarietak, tabernak, kontzertu antolatzaileenak nahiz melomano sutsuenak. Hala ere, historia idazten duenak ez du beti kontatzeko pribilegioa izaten, eta, aldiz, kontatzen duenak bere araberako historia idazteko aukera izan ohi du. Kontalaria edozein izanda ere, errepikatzen diren izenen artean egon beharko lukete Joseba eta Mikel Aizpurua anaienak. Historiari traizio egitearen zama, gutxienez, berekin eraman behar luke zaku horretan sartzen ez dituenak.

1986an eman zuen Ahuntzaren Gaurdiko Eztula taldeak lehen kontzertua, eta, azkenik, berriz, pasa den uztailan, bere disko berria jendaurrean aurkezteko aprobetxatuz, Itzurun tabernan. Taldeari jarraikortasun falta egozten dionik bada; baita kontzertu gutxi ematen duela dionik ere. Edonola ere, ekinean izan dira azken 31 urteetan, denborarik gehiena lokalean sartuta eman badute ere. “Kontzertuak ematea baino, lokalean elkartu eta entseatzea gustatzen zaigu guri”, diote, bide batez, gaur egungo musika elkarrizketetan hain errepikatua den eta esanaren esanez sinesgarritasuna galtzera ere iritsi den “gure indargunea kontzertuak dira” esaldiari buelta emanez. Musikarekin duten konpromisoa nolakoa den, edo, gutxienez, musikak zenbateraino asebetetzen dituen ondoriozta daiteke esaldi horretatik.

“Kontzertuak ematea baino, lokalean elkartu eta entseatzea gustatzen zaigu guri”

Hala ere, beste edozein talderen moduan, lokalean ereindakoa jasotzeko tartea hartzen dute noizean behin, eta hala egin dute berriki. Hamabi abestiko uzta bildu dute azken diskoan. Diskoak izan arteko prozesua luzea izan dela onartu dute. Denbora zen abesti guztiak grabatuak zituztela, baina grabazioaren osteko entzunaldietan ohi baino zorrotzago izan dituzte belarriak:

“Grabatzea gauza bat da, baina grabatu eta gero entzun egin behar dira. Kantu bat sortu eta gero, kantua horrek bere forma hartu behar du, ahotsak hartu behar duen bezala. Kanta askori puntu bat falta zitzaizela ikusi genuen”. Entsegu lokaleko ordu luzeetan, sintetizadore eta pista ugari grabagailuen laguntzaz eman diete abestiei falta zuten puntua. Hala, bi instrumentu beharrean gehiagoren soinua ere nabari da; pianoarena eta mandolinarena, besteak beste.

Basadiko entsegu lokalean, etxe giroan, ekoitzi dute lana. Ekoizpen moduak ez die buruhauste handirik eragiten. “1992an izango zen. Donostiako estudio batera joan ginen, eta nahikoa esperientzia txarra izan zen. 100.000 pezeta gastatu genituen, eta emaitzarekin ez ginen gustura geratu. Etxean grabatzearen onena da nahi duzunean joan zaitezkeela. Estudiara, aldiz, ideia oso garbiekin joan beharra daukazu. Ordu jakin batzuk dituzu, eta, abestiak grabatzeko ez dituzu nahi adina hartualdi”.

Hamalau abestiko oinarria zuten disko berriari begira, baina horietatik bi kanpoan utzi zituzten. Espresuki diskorako

materiala biltzen ibili ez badira ere, zerbait kaleratzea buruan edukita aritu dira lanean, onartu dutenez. Azken bi urteotan sortutakoak dira abestiak, baina atera aurreko azken sei hilabeteetan eman diote forma lanari; diskoa haien erritmora egokituz, eta ez alderantziz, baina iraungitzen utzi gabe. Hortik, titulua: *Berandu baino lehen*.

“Gu musikariak gara, batez ere, eta ez poetak edo idazleak”, dio Josebak. Elkarren osagarri izanik, ezin, hala ere, bata bestearengandik bereizi. Erosoago zertan aritzen diren jakinda, abestien sortze prozesua handik abiarazten dute. Musikatik, euren kasuan. Erritmoen gainean ahotsen melodiak, eta, azkenik, letrak. Azken horiek, gehienbat, Josebak egiten ditu. Inguruan duenetik edaten du, gehienbat, izan pasadizo xelebre batetik, esamolde batetik edo unean uneko sentipenetatik. Umoreari ere lekua eginez, ahal dela: “Mundua badakigu nola dagoen, baina musika pixka bat alaia bada, gustatzen zaigu letrak ere halakoak izan daitezten”.

Aitzindariak Zumaian

Egun dena baino askoz ere subertsiboagoa eta errebeldeagoa zen rocka, 1980ko hamarkadan. Eta hala bizi ez zutenek ere berritzailetzat bazuten, gutxienez. Testuinguru hartan sortu zen AGE. Musikalki, garaian aski ezaguna zen Taosa aretoan hezi ziren. “Musika zaharra jartzen zuten han: Deep Purple, Rory Gallagher, Janis Joplin... Han ikasi genuen musika baloratzen”. Giroak kutsatuta hasi ziren, belaualdikide zituzten beste batzuk bezala.

“Gauza politak egin nahi genituen, baina ez genuen ez tekniarik, ez esperientziarik”, dakarte gogora. Egun ez bezala, orduko musikari hasiberriek euren kabuz ikasi behar izaten zuten musika jotzen. Musikaren harra barruan zutela, aitak gitarra bat oparitu zien bi anaiei. Joseba ezkerra dela, eta Mikel, aldiz, eskuina; horixe zuten arazoa, baina ez zitzairen gehiegi kostatu irtenbide praktikoa aurkitzea. Gitarraren sokak alderantziz jarri zituzten; tonu altuena dutenak mastilaren goialdean jarrita, alegia. Jotzeko modua moldatzera eraman zuen horrek Joseba. Hori dela eta, bakarren bati identifikagaitzak egingo zaizkio oraindik bere akordeak.

Laukote moduan hasi zen taldea. Ordutik hona, Askotan aldatu da formazioa. Joseba eta Mikel izan dira uneoro bertan mantendu diren bakarrak, eta, egun, bikote gisa aritzen dira. Ezeren ginetik, konpromisoa eta dedikazioa beharrezko dira, talde batek jarraikortasuna izango badu. Urteen poderioz, ondo ikasi dute lezioa bi anaiek, baina AGEtik igaro diren guztiek ez dute, arrazoi desberdinak tarteko, azaleratzen den azpian dagoen musikaren aurpegi hori gustukoegi izan, edo, besterik gabe, ezin izan diote bi anaiek adina denbora eskaini taldeari. “Taldea baten soinua ona izan dadin, taldeko

kide guztiek eboluzionatu behar dute maila berean, eta ordu askotako lana dakar horrek”, dio Mikelek.

Ez dira nostalgiari oso emanak Joseba eta Mikel, baina memoria ariketa handirik egin beharrik gabe, gogoan dituzte Zumaian loratu ziren lehen rock taldeak. Haiekin batera, Harri Koxkorrak eta Katxaperuak izendatu dituzte. Haien arabera, AGEren lehen kontzertuetako batera hurbildu zirenetako batzuk harritu ere egin ziren, musikariei aurpegia jarri eta zumaia-rrak zirela ohartzean. Tradizio handirik ez zuen herrian rockak, nonbait, eta zuen gutxia kanpoko taldeei zor zitzairen. “Guri buruz entzun zutenek galdetzen ziguten ea gu ginen talde berri hura, aditzera emanez, hala bazen, edonork egin zezakeela rock talde bat”, dio Josebak.

Kontzertu agenda ez du inoiz be-teegia izan AGEk, baina 1980ko eta 1990eko hamarkadetan, aldarrikapenez bustitako ekimenetan ez ziren musika taldeak falta izaten, eta aukera hori ahal beste aprobetxatzen saiatzen ziren, kideek diotenez: “Jaialdiren bat baldin bazegoen, hantxe joaten ginen kartelean, izan Gestoraren aldeko martxa bat, Korrika, nuklearren kontrako afari

“Mundua badakigu nola dagoen, baina musika pixka bat alaia bada, gustatzen zaigu letrak ere halakoak izan daitezten”





bat...". Herritik kanpo ere izanak dira hainbat plazatan. Donostiako Le Bukowski tabernako oholtza gainean bi aldiz arituak dira, esaterako, Gipuzkoako hiriburuko nahiz kanpoko musika eskaintzaren arnagune nagusietako bat den aretoan. Bereziki akorduan dute bi horietako bat, kontzertuagatik beragatik baino, testuinguru bitxiagatik: "Eurokopako finala botatzen ari ziren telebistan, gu kontzertua ematen ari ginen bitartean. Jendetza elkartu zen, baina telebista oholtzaren goian zegoenez, hara begira ari ziren gehienak, kontzertuari begiratubeharrean".

Urteetan pilatutako hamaika anekdota dituzte kontatzeko. Baita "kontatu ezin direnak" ere, *off the record* utzitakoak. Anekdota bat du ardatz taldearen abesti ezagunenak ere: *Felipinen istoriak*. Taldeaz ezer gutxi dakiten askok ere entzuna izango dute *hita*. Gainerako abestiek ez bezalako oihartzuna izan zuen kanta horrek, onerako zein txarrerako. Mikel: "Bi aurpegi ditu. Alde batetik, ondo dago jendeak kanta batekin identifikatzea; bestetik, lau disko atera eta jendeak oraindik ere abesti bera eskatzen jarraitzea etsigarri xamarra da; baditugu beste 40 abesti, baina horrekin geratu da jendea; perretxikoak biltzera joateak, Guardia Zibilak eta horrek guztiak grazia egiten dio jendeari".

Abestiaren ondorio positiboaren artean aipa liteke, behintzat, lortu duela belaunaldi berriek AGEren berri izatea. Transmisioan lagundu zuen Paukoiat talde zumaiarrak duela urte batzuetako San Telmo jaietan AGEren bertsioak egin izanak ere. Gaia atera eta berehala, irribarrea ageri da bien aurpegian. "Ohore handia izan zen guretzat herriko talde batek gure abestiak jotzea", dio Josebak. Momentuan ez ziren han izan. "Ez genuen nahi han izan, eta arreta geureganatzea. Gaua beraiena zen, eta eurak ziren protagonistak; ez genuen protagonismo hori guk eraman nahi".

Egokitu beharra

Musikatik baino musikarako bizitzetik hurbilago egon da beti AGE, eta afizio hori lehen bezain bizi mantentzen dute oraindik. Mikelentzat "zeure buruari jartzen diozun erronka moduko bat" da musika: "Ez zara inoiz geldirik geratzen. Beti ari zara gauza berriak probatzen. Dinamika horretan sartzen zara, eta ederra da".

Hasi zirenetik hona, aldatu dira musika joerak, ordea, eta aldatu da taldearen beraren musika ere. Akustikorako jauzia izan da, agian, aldaketarik nabarmenena. Prozesu luzea izan zen. Formazioan izandako aldaketek bultzatua, batez ere. Horrek ekarri zuen elektrikitik akustikora egokitu beharra. 1996tik 2006ra bitartean, taldeak ez zuen kontzerturik eman. "Ikusi genuen ez genuela nahikoa maila elektrikoan aritzeko. 2006an proposamena egin ziguten taberna batean formatu akustikoan aritzeko, eta, orduetik, hala ari gara. Lehen "B plana" akustikoa zen, eta, orain, berriz, alderantziz". Rock gosea bere horretan mantentzen dute, ordea, eta entsegu lokalean astero arduratzen dira hori asebetetzeaz. Astean bi entsegu egiten dituzte formatu elektrikoan, eta beste bi akustikoan.

Horixe baitute habitat naturala: entsegu lokala. Noizbehinkako jendaurreko agerpenetan ematen diote publikoari han landutakoaren azken lagina. Tartekako dosi txiki horiek ere egin baitute berezi taldea. Edonola ere, erritmo mantso baina konstantean, mende herenetik hurbil da AGE. "Bada anbizioarik ez dugula dioen jendea. Guk musika maite dugu; egunero joz eta entseatzat disfrutatzen dugu. Hori anbizioarik ez edukitzea al da?", bota du galdera airera Mikelek. Anbizioz edo adikzioz; baina musikari hertsiki loturik jarraitzen du bikoteak, eta gauerdian eztulka, ahuntzak. ■



Galdona

Barrio de Galdona

denda:

Mendaro marinela, 1
tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^o Korta Industrigunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943 861 117
fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina

• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



Joselu **OIARZABAL**, *Ielu*

BIDAIARIA ETA IDAZLEA

“Bidaiatzeari esker bizitzaren **beste ikuspuntu** bat dut”



Joselu Oiarzabal du izena, baina *Ielu* bezala ezagutzen dute. Zumaian hau azken 15 urteotan munduan zehar aritu da bidaiatzen, lekuak eta kulturak ezagutzen. Bizitako pasarte batzuk *The World for my Pillow* liburuan jaso ditu. Udazkenean du berriro motxila hartu eta munduan zehar bidaiatzeko asmoa.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Bigarren urtez jarraian, uda garaian, Donostiako hotel batean dabil lanean Ielu. Lanak libre utzi dion egun batean elkartu gara egindako bidaiez eta atera duen liburuaz hitz egiteko. Atlas handi bat eraman dugu, gero, argazkiak ateratzeko. Berak dio atlasen beharrik ez duela, bidaiak, mundua, mapak buruan dituela azaldu digu. 41 urte ditu eta 26 urte zituenetik dabil munduan zehar bidaiatzen. Lana amaitu eta bidaiatzen jarraitzeko gogo du dagoeneko, eta oraindik erabat erabaki gabe badu ere, Australiara edo Zeelanda Berrira joatea du buruan.

Nola sortu zitzaizun bidaiatzeko gogo edo behar hau?

Gazte nintzela, Zumaian, nire lanak egiten nituen, neska-

rekin ateratzen nintzen, saskibaloian jokatzen nuen eta hor konturatu nintzen zerbait gehiago behar nuela, hemengo bizitzak ez ninduela guztiz betetzen. Txikitatik nuen har hori. 17 urte nituela telebista bidez iragarritako *Ciudades del mundo* bilduma erosita nuen. Gero, pixkanaka, tope bat jo nuen. Ikusi nuen zerbait gehiago behar nuela, eta joan egin nintzen. Lehenbizi Dublinera (Irlandara) joan nintzen, ingelesa hobetzera. Hemen, eskolan, ingelesean nota oso onak atera nituen eta konturatu nintzen hizkuntzetarako dohaina nuela. Dublinen urtebete egin nuen, uste baino luzeago. Gero, lehen bidaia Jamaikara izan zen. Hori argi nuen. Kristoren esperientzia izan zen. Hiru hilabeteko bidaia izan zen, motxilarekin.

Bidaia bat egiten duzunean, nola planteatzen duzu?

Abentura gustatzen zait, batere planeatu gabekoa. Hori ere pixkanaka joaten zara ikasten. Beldur guztiak nituen hasieran. Hemen nuen guztia utzi behar nuen erabat ezezaguna zitzaidan leku batera joateko. Hasieran gauzak gehiago lotzen nituen, eta joan aurretik ostatua kontratatuta izaten nuen. Baina, pixkanaka, pentsatzen joan nintzen hura txorakeria zela, eta, gaur egun, autostop egiten dut toki guztietan; hondartzetan lo egiten dut eta umeen parkeetan ere lo egin dut. Azkenean niretzat, eta, esango nuke, denontzat, erabakia hartzea da garrantzitsua. Banoa, eta joan! Behin joanez gero, dena ateratzen da ondo. Klaro, lapurretak jasan ditut, engainatu naute, baina hori normala da. Niri bidaiek dena eman didate. Beste pertsona bat naiz. Hizkuntza mordoa ere ikasi ditut, bizitzaren beste ikuspuntu bat dut, eta nire lehen-tasunak beste batzuk dira. Beste mundu oso bat zabaldu dit. Mundu hau hemen dago, eta gustura etortzen naiz, baina beste mundu horrek asko erakartzen nau.

Zer egiten duzu, urtean zehar lan egin eta bidaiatzera ir- ten, edo iraupen luzeko bidaiak egin?

Denetik egin dut. Urte eta erdi jarraian bidaiatzen ibili, urtebeteko bidaiak, hiru hilabetekoak, bidaiatzera joan, leku hartan lana aurkitu eta gero bidaiatzen jarraitu. Denetik. Ez dut plan zehatzik. Etortzen denaren arabera. Eta lekua gustukoa badut, geratu izan naiz. Sei herrialdeetan bizi izan naiz, eta hori planeatu gabe. Hego Afrikara joan nintzen eta aterpetxe batean lana aurkitu nuen; aspertu nintzenean alde egin nuen. Txilen berdin, Indian ere bai. Bidaiatu eta zerbait ikastea da inporta zaidana. Ez da bakarrik joan eta ikustea. Hemendik irten hemen bezala bizitzeko? Horretara ez noa. Behin joanda, hizkuntza bat, kultura bat ezagutu nahi dut. Herri indigenak ere asko gustatzen zaizkit. Pixka bat aukeratzeko saiatzen naiz, ez naiz edozein tokitara joaten joateagatik. Eta ez badut nora joan, ez naiz joaten.

Turismoko gune handietara joaten al zara?

Kuadrillakoek beti esaten didate joaten naizela inor joaten ez den tokietara. "Bai, baina ez dut apropos egiten", erantzuten diet. Thailandia, Asiako hego-ekialdea... Horrek ez nau batere erakartzen. Ez dut esaten ikusteko gauza interesgarririk ez dela izango, baina ez nau erakartzen. Beste zerbait nahi izaten dut. Kurdistanen izan naiz, Kanadara joan eta uharte batera joan naiz indigenak ikustera, Laponia... Jendea joaten ez den lekuetan izan naiz, baina ez da izan apropos bilatutakoa. Beti jendetzatik urruti egoten saiatzen naiz.

Zenbat tokitan egon zara?

60tik gora herrialde ikusi ditut. Batzuk pasadan, beste batzuk geldituta. Denean ezin da gelditu, baina bai, 64 edo 65 izango dira.



Zein izan da gehien gustatu zaizuna?

Iranera joan nintzenean, berez, Kurdistanera joan nahi nuen, kurduak ezagutu nahi nituelako. Turkiako Kurdistanera joan nahi nuen. Kurduei buruzko liburu bat irakurri nuen eta ezagutu nahi nituen. Urteberria ospatu nuen beraiekin eta oso ondo joan zen. Pisukide bat izan nuen, iraniarra. Iran-Irak gerra garaian Suediara egin zuen ihes eta Malagan amaitu zuen. Berak esan zidan Iranera joateko. Ez nuen inoiz pentsatu hara joatea, burutik pasa ere ez zitzaidan egin. Iran gatazkarekin lotzen dugu; gatazkak daudenean bakarrik agertzen da hedabideetan. Bisa lortu nuen, hiru aste igaro nituen han eta txapela kentzekoa izan zen. Galde-tzen didatenean ea zein izan den bidaia

“Jendea joaten ez den lekuetan izan naiz, baina ez da izan apropos bilatutakoa. Beti jendetzatik urruti egoten saiatzen naiz”

LABARRA TABERNA
ZUMAIA
est.2016

Ondartxo plaza 5, Tel. 943 860 484



CROISSANTERIA

pizzak
hanburesak
bokatak...

Marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

BALEIKE.eus

Deskargatu doan app-a



"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

Nikol
taberna

Amnaiko plaza 243561816



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

636 887 812 (Zumala)
609 834 438 (Itziar-Deba)

www.carroceriasnoia.com

OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

ETXEGINTZA
OLIDEN

construcciones y reformas, S.L.

647 040 156
686 911 257

oliden@olidenreformas.com

Oliden arkitek-tura

678 875 652

943 143 093

lar@olidenreformas.com

ZARAUTZ - ZUMAIA

www.olidenreformas.com

Fotakok

Telatuak

Etxebizitzak

(Sukaldek, banuziak)

Industrian mantentzeak

Mota gutxiakko egoerak

Etxebizitzaren inspezio teknikoak (ITE)

Zertifikatu energetikoak

Fotobaten diseinua eta aholkularitza

Etxebizitzaren berrantolaketa

Mota gutxiakoko proiektuak



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranatz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortu Industriegunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 08 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943 86 13 25

Julio Beobide Ibiltoxia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Primavera
pizzeria

943 247 011



www.laprimaverapizzeria.com

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitortekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (Kodilloa)
Saltxitzak, ollaskook...
Garagardok aukeran

Ondartxo plaza, 4 beheko - Tel. 943 573 905

TTAKUN TABERNA



Izustarni, 3

tel. 943 865 289



UKENDU

PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com



gogokoena, Iranera egindakoa esaten dut. Sorpresa handiena eman didana izan da. Mundu guztiari gomendatuko nioke Iranera joatea eta ikusi zer den. Ez kasurik egin komunikabideek diotenari! Palestinan egon naiz, Jordanian, Egipton Mubarak bota eta gutxira, Sirian saiatu nintzen sartzen, baina gatazkak hasiak zirela eta ez zidaten sartzen utzi... Eta Iranen oso ondo pasa nuen.

Okerren, berriz?

Somalia. Okurritu zitzaidan Somaliara sartzea, iparraldean dagoen Somalilandia izeneko zonaldera. Independentea izan nahi duen zonaldea da, hala bozkatu zuen, baina nazioarteko

komunitateak ez du onartzen. Eta horrela daramatzate 20 urte. Hor gaizki pasa nuen. Garai hartan rastak nituen eta jendeak uste zuen demonioaren haragitzea nintzela. Kalean kristorenak esan zizkidaten, beraien herritik alde egiteko oihukatu zidaten, ea zer egiten nuen han, etab. Espaloitik joan eta jendea beste espalaira pasatzen zen; autobus batean sartu eta, nahiz eta beteta zegoen, nire ondoko eserlekua hutsik geratzen zen. Lau egun egin nituen, eta egoera ikusita, alde egiteko erabakia hartu nuen. Etiopiar lurrez bueltatzeko jeep bat hartu behar nuen. Jeepek, han, eserlekuen hiru lerro dituzte eta bakoitzean lau pertsona esertzen dira. Ni bigarren lerroan eseri nintzen, leihoaren ondoan. Aurrekoa bete zen, atzekoa ere bai eta nire ondoan ez zen inor eseri. Gidaria hurreratu zitzaidan eta esan zidan nire aurka ez zuela ezer, baina hortik bizi zela, hura zela bere lanbidea, eta lau pertsonaren dirua ordaintzeko edo beste jeep bat hartu beharko nuela. Pentsatuta beste jeepean ere berdina gertatuko zela, lauena ordaindu nuen. Etiopiar joan nintzen eta hura beste gauza bat zen: Etiopia nahiko rastafaria da eta rastak izatea ia abantaila zen. Somalilandiar ez da inor joaten; Etiopia, berriz, turistikoagoa da, gehienbat Iparraldea.

Turismo hitza aipatu duzu. Hegaldiak merketu dira eta turistak munduko txoko guztietara heltzen dira. Nola ikusten duzu hori?

Bidaiatzeko era batzuk ez zaizkit gustatzen. Era askotako

ZATOZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!



Webgunea: talasoterapiazelai.com

Tel. 943 865100

Talasoaren ordutegia: Egunero irekita 9:30etik 20:30era

Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.





LIBURUA

leluren liburu lulu.com
webgunean bakarrik eros
daiteke.

turismoa dago: niri neurea gustatzen zait, eta beste batzuei beraien gustatuko zaie. Gustatzen ez zaidana da erakusteko egiten den turismo hori, argazkiak eta selfiak ateratzeaz bakarrik arduratzen dena, momentu horretan aurrean duzunaz fijaseta baino gehiago. Baina hori oso pertsonala da. Ona ere bada prezioak ere jaitsi izana. Lehen bidaiatzea luxua zen eta orain edozein tokitara joan zaitezke. Papua Ginea Berrirako hegazkin txartelak begiratzen aritu naiz. Lehen abentura zen hara joatea pentsatze hutsa ere. Orain 1.400 euroekin joan zaitezke. Hori zergatik? Bada, informazio gehiago dugulako. Gaur egun Mongoliara joatea erabakitzen badut, Interneten sartu eta han duzu guztia. Asko erraztu da bidaiatzea, baina, gero, norberak erabakitzen du zer nolako turista izan nahi duen. Ez naiz inoiz *resort* batean izan, eta hoteletan behin edo behin. Lo, generalean, jendearen etxeetan egiten dut. Nik bi webgune erabiltzen ditut: bat, lan egiteko, eguneko ordu batzuen ordainetan janaria eta lo egiteko lekua eskaintzen duna; beste webgune bati esker lo doan egiteko lekua aurkitzen dut. Gero, noski, hemen nagoenean, jendea hartzen dut etxean. Pixka bat eman behar duzu, beste pixka bat jasotzeko. Ez baduzu inoiz ezer ematen, helduko da unea zuri ez dizutela emango.

Bidaia hauek liburu batean jaso dituzu. Nola sortzen da liburuaren ideia?

Jordanian bidaiatzen nabilela txinatar bat ezagutu nuen. Aterpetzeko jangelan ezagutu ginen, hitz egiten hasi eta bakoitzaren istorioak kontatzen hasi ginen. Nik, orduan, Afrika zeharkatu nuen Hego Afrikatik hasita eta Jordanian nengoan. Berak zioen leku horietan egon zela, baina halako gauza ez zituela bizi izan. “Gauzak gertatzeko, bidetik pixka bat irten behar da”, esan nion. Galdetu zidan ea ez al nuen liburu bat idazteko asmorik. Ez nuen, baina beti idatzi izan

dut. Koaderno mordoia dut etxean, hala ateratzen zaidalako. Argazkiak ez, argazki askorik ez dut ateratzen. Berak esan zidan dena biltzeko, liburu idazteko, eta Txinan argitaratuko zutela. Ingelesez idazteko eta han mandarinerara itzuliko zutela. Berak esan zidan argialetxe batean lan egiten zuen jendea ezagutzen zuela. Nituen esperientziak bildu nituen eta 9-10 hilabetean idatzi nuen. Betiere harekin harremanetan egon nintzen, eta, halako batean, desagertu egin zen. Mezu mordoia bidali nion, haren telefonoa ere banuen eta dei egin nion, haren lagunei ere idatzi nien, eta pikutara! Hor pentsatu nuen liburu idatzita nuenez, zerbait egin behar nuela horrekin. Hasi nintzen Interneten ikertzen eta lulu.com argialetxe independentea aurkitu nuen. Horiek erreminta guztiak ematen dizkizute zure liburu autoeditatzeko. Liburu, *The World for my Pillow*, horien webgunean bakarrik dago salgai eta 15 euro balio du: 5 euro inprimatzeko, 5 euro beraientzat eta beste 5ak niretzat. Ez dut diruagatik egin; liburu idatzita zegoen eta irtenbide bat eman nahi izan diot.

Nola antolatu duzu liburu? Egondako herrialde bakoitzari buruzko kapituluak ditu? Edo gai bat hartuta hartan sakontzen duzu?

Ordena izan behar zuen liburuak. Lehenbizi, neure buruari galdera bat egin nion: zer dut kontatzeko? Horren arabera, zerranda bat egin nuen, eta gero herrialdeen eta kronologiaren arabera ordenatu nituen. Kapitulu bakoitzean zerbait gertatzen da. Batzuetan da toki baten deskripzioa, gehiengotan gertatu zaizkidan gauza deigarriak. Hala antolatu nuen liburu.

Liburu ingelesez dago. Ba al duzu itzultzeko asmorik?

Momentu honetan ez. Ez nuen espero hala ateratzea. Ingelesez idatzi nuen eta ingelesez dago. Agian, egunen batean...

Gaur egun Donostiako hotel batean egiten duzu lan, baina, uste dugunez, hurrengo bidaia pentsatzen hasiazara.

Bidaia beti dut deika. Irailaren bukarara arte dut kontratua, urria lasai pasako dut hemen, eta, gero, agian, azaraldera joango naiz.

Nola erabakitzen duzu nora joan? Mapa bat hartu eta hari begira aukeratzen duzu edo buruan ideia bat izaten duzu?

Errepikatu ez dut egiten. Txilera edo Argentinara joan izan naiz lanera edo lagunak bisitatzera. Australia eta Zeelanda Berria hor ditur buruan. Ozeaniara ez naiz joan eta Asia asko ere ezagutzeko daukat. Gehien ezagutzen dudana Ekialde Ertaina da, mundu musulmana. Hain desberdina da, erakarri egin ninduela, eta orain ere bai. Txina, Japonia eta Mongolia oso interesgarriak iruditzen zaizkit, Indonesia ere bai, Brunei... Vietnam ez zait asko interesatzen, baina joango nintzateke.

Nora ez zinateke joango?

Oraintxe bertan Ipar Koreara. Aldamenean norbait izatea kontrolatzen nora noan edo norekin hitz egin behar dudana, hori ez dut nahi. Egon naizela esateko bakarrik, horretarako ez dut joan nahi. Noski, egunen batean atea zabalduko balute, sartu eta

“Gustura egoten naiz hemen, baina une batean abenturak deitu egiten nau”

ikusteko askatasuna izango banu, orduan joango nintzateke.

Ametsik ba al duzu?

Argentinara joan nintzenean lursail txiki bat erosi nuen. Kanpin bat muntatu nuen han. Hura zen nire bizitzako ametsa. Diru bat nuen eta hemen ezin nuenez diru harekin ezer egin, hara

joan nintzen eta kanpin txiki hura muntatu nuen. Han ez zegoen ezer ere, akazia lehor batzuk izan ezik. Arotz bat kontratatu nuen eta bion artean egurrezko etxetxo bat egin genuen. Uda batean zabaldu nuen eta uda amaitu zenean, egun batean, jaiki nintzen, lursailaren beheko aldera joan nintzen, begiratu nuen eta esan nuen, “Listo! Honetara etorri naiz, egin dut eta orain zer?”. Kanpinaren erdia saldu nuen eta beste erdia oraindik nirea da. Hiru urteren ondoren aurten joan naiz bisitan. Bestela, ametsa hala jarraitzea da, osasuna izatea eta lana izatea bizitzeko eta bidaiatzeko gai izateko. Onena da bidaia batera joan eta itzultzen naitzenean honek beti bezala jarraitzen duela. Noski, bakoitzak bere gorabeherak ditu, baina lagunak hemen daude, herria hemen dago. Etortzen naizenean, badirudi ez naizela joan. Gustura egoten naiz hemen, baina une batean abenturak deitu egiten nau. ■

Bai bidea batzokia jatetxea

OLARRO EGUNEKO

Bai bidea menua

- Etxeko aperitiboa
- Bai bidea olagarro enpanada
- Legatza plantxan
- Presa iberiarra
- Txokolate eta karamelozko soufflea

Etxeko ardoak:

LAXAS (albariño)

SANCHO GARCES (errioxa)

PRINCIPE VIANA



Eusebio Gurrutxaga plazan 943 86 02 75

IRAILA-URRIA

DEIALDIK

Geoparkeko bisita gidatuak egunero
www.geoparkea.com
 KULTURAKO IKASTAROEEN IZEN-EMATEA Irailak 11-21, taldeak bete arte, Alondegia kulturetxean. (09:30-14:00),
kulturetxea@zumaia.eus
 943861056

ERAKUSKETAK

Oxford aretoan

Irailak 9-24

Eduardo Laborde: *Jauregi berrikusiak*

Irailak 28 - Urriak 15

Titto Aguerre

IRAILA

8, ostirala

20:00 Aitzurin Jai Alai World Tour
 Master seriea

15, ostirala

20:00 Komentuan abesbatzen
 kontzertua: Beheko Plaza eta Pola de Sieroko abesbatzak

20:00 Aitzurin Jai Alai World Tour
 Master seriea

16, larunbata

OLARRO EGUNA

28-30 ARTADIKO JAIK

29, ostirala

20:00 Aitzurin Jai Alai World Tour
 Open desafia

30, larunbata

17:00 Euskal Kosta Kros lasterketa

URRIA

5, osteguna

15:30 Aita Marin antzerkia
 ikastetxeetako ikasleentzat: *Muxua*,
 Tanttaka

7, larunbata

10:30 Bisita gidatua: Narrondoko
 zementeren paisaia, ZIIZen eskutik

8, igandea

17:00 Aitzuri pilotalekuan Bertso
 Txapelketa Nagusiko bosgarren
 final-larrenda

20, ostirala

22:00 Oxford aretoan antzerkia:
Hozkailua, Huts teatroa

22, igandea

12:00 Aita Marin antzerkia
 haurrentzat: Kontukantari, *La Enana Naranja*

27-28 ostiral eta larunbata

Jardunaldia: Askotariko
 diskriminazioen aurkako ekintza
 feminista, Haurraldek eta Malen
 Etxeak antolatuta



Urriak 5, osteguna

15:30 Aita Marin antzerkia ikastetxeetako ikasleentzat: *Muxua*, Tanttaka

Zalla
 • plater konbinatuak
 • ogitaratekoak
 • oilasko erreak
 Urda Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
 E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com
 BASADI 12
 20750 ZUMAIA
 Tel. 943861018 / Fax. 943016125

Zumaia Hotela
Jateketa Kafetegia
 Abai suztegia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

EuroTaller
 ZUMAIA MOTOR, S.L.
 José Rey Alfaro Gerente
 Santxo Auzoa, 22
 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
 Tel. 943 143 143 - Fax 943 865 161
 e-mail: zumaiaimotor@telefonica.net

Txomin Agirre kalea 6,
 750 Zumaia, Gipuzkoa
 T. 943.143.057
www.eduoptika.com
EDU
 ZUMAIARD
 OPTIKA
 RPS 18/16

Trailean



Eskolara itzultzera

Zumaia txartela erabilia,
5, 10, 20 edo 50 €-ko sariak lor ditzakezu,
denda hauetako batean gastatzeko!!

a3 diseinua inprimatzea
Aizpurua liburu-denda
Mandala papertegia & diseinu grafikoa



Zumaiako Udala

Olarro Eguna 2017

Irailaren 16an

Herri bazkarirako txartelak eta
kamisetak astebete lehenago salgai
turismo bulegoan.
Helduak 8€/Haurrak 5€. Zapiak 1€



Zumaiako Udala



U d a k o a r g a z k i l e h i a k e t a 2017



Seguru udan hamaika argazki aterako dituzula, oporretan, festetan, lagun artean... **Anima zaitetz** eta parte hartu BALEIKEk antolatu duen lehiaketan. **Sari bikainak dauzkazu zain!**

- Parte-hartzaile **bakoitzak bost argazki** aurkeztu ahal izango ditu (jpg, 5mb gehienez).
- Argazkiak bidaltzeko epea: **irailaren 17ra arte**.
- Parte hartzeko: **aldizkaria@baleike.eus** edo **baleike.eus** webguneko formularioaren bitartez.

SARIAK:

1. Epai-mahaiaren saria: bi lagunentzako **asteburu pasa Kantabrian** bqđ bidaiak eskainita.
2. Interneteko saria: **bi lagunentzako jatordua Bai Bidea jatetxean** eta Donostiako **Aquariumerako bi sarrera** bqđ bidaiak eskainita.
3. Bozketan parte hartzen dutenen artean, **Bai Bidea jatetxeak emandako bi lagunentzako bazkari/afaria** zozkatuko dugu.

Baleike.eus-en aurkituko dituzue oinarri guztiak.

Antolatzailea

BALEIKE.  **eus**

B a b e s l e a k


bai bidea

bqđ bidaiak
viajes - travel